

Lizentzia bai, aurrerapenak eskas

Euskadiko Kirol Legeak urte eta erdi bete du, baina Euskadiko federazio gehienek urrun ikusten dute oraindik legeak ematen dituen aukerak baliatzea

Xabin Makazaga / Donostia

EUSKADIKO KIROL LEGEA 1998ko ekainaren 11n onartu zuen Eusko Legebiltzarrak —duela urte eta erdi pasea—, baina hura aurrera ateratzeko urrats handirik ez da egin Euskadiko federazio gehien aldetik. Legearen puntu baten kontra —nazioartean euskal kirolaren ordezkari euskal federazioak direla dioena— errekurtsioa aurkeztu zuen Madrilgo Gobernuak, eta Espainiako Auzitegi Konstituzionalak aztertu zain dago. Gainontzeko guztia indarrean dago.

Euskadiko federazioek, berez, ez daukate zertan Espainiako lizentziak egin. *Lizentzia* badute estatuko lehiaketetan euskal lizentziarekin jarduteko, kirol amateurrean behinik behin. Lehendik bazuten aukera, eta Euskadiko Kirol Legeak eskuarki babesen du hori: 49. artikuluko 3. puntuak Euskal Herrian ari diren kirolariek euskal lizentzia izan behar dutela dio. Gutxi dira, ordea, beren federazioetan kirolariek euskal lizentzia atera dezaten bultzatu dutenak. Ohitura izan da Espainiako lizentziarekin jardutea —EAE barneko lehiaketetan izan ezik—, eta «inertzia» horrekin jarraitzen dute gehienek.

Etixerako behintzat bai

Pilota, arraunketa, sanbo eta surf federazioetan behinik behin euskal lizentziarekin jarduten dute. Euskal Mendizale Federazioak, berriz, bere lizentziak ditu —1.400 inguru, iaz baino 500 gehiago—, Espainiako Mendi Federazioarekin batera loturarik ez duela.

Euskadiko Txirrindularitza Federazioan, aldiz, lizentzia bikoitzak dituzte: etxean jokatzen dituzten probetan euskal lizentzia erabiltzen dute, eta kanpoan sarri Espainiako. Euskal lizentzia onartuko dioten ziurtasunik ez badute, Espainiako aurkezten dute. Javier Madariagak azaldu digunez, «ahal dela euskal lizentzia erabiltzen dute txirrindulariek; baldin badakigu arazoak sortuko di-



JOSEBA OLALDE

Kirolaren Legea onartu zuten parlamentarioak, Eusko Legebiltzarrean, ESAITeko kideekin, selekzioaren aldeko elastikoak jantzita. EAJ, HB, EA eta IUk bozkatu zuten legearen alde, 1998ko ekainaren 11n.

PAKO IRIONDO
(Euskal Mendizale Federazioko presidentea)

«Guk selekzioa nahi dugu, baina lehiatzeko baimena izanda ere, ezingo genuke hori geure gain hartu»

JAVIER MADARIAGA
(Euskadiko Txirrindularitza Federazioko presidentea)

«Euskal lizentzia erabiltzen dugu guk Euskal Herrian, baina txirrindularia kanpora joaten bada, Espainiako»

JON ANDER GANBOA
(Euskadiko Futbol Federazioko idazkaria)

«Inertziak egiten ditugu Espainiako lizentziak, baina euskal lizentziak aterarazita ere, zer aldatuko litzateke?»

rela, Espainiako. Kontua ez baita joan, bidaia luzea egin, eta korritu gabe itzultzea».

Euskal selekzioa lehiaketa ofizialetan aritzeko aukerari buruz, aldiz, «erabat aldeko jarrera» dutela esan du Madariagak: «Maila eta egitura aldetik, gainera, lan ona egite-

ko moduan gara. Aukerarik eza, hori da gure arazoa. Eta hor politikariek dute zer egin».

Federazio gehienek, ordea, ez dute aintzat hartu Kirol Legeak dioena —euskal lizentzia izan behar dela—, eta askok hori bultzatzeko as-

morik ere ez dute. Euskadiko Futbol Federazioko idazkariak, Jon Ander Ganboak, honela esan digu: «Guk hemengo txapelketetan, *territo-rialetan*, gure lizentzia erabiltzen dugu. 3. Mailan eta 2. B Mailan, aldiz, Espainiako. Hortik gora beste kontu bat

da: liga profesionalak Espainiako Federazioaren bitartez bideratzen ditu lizentzia profesionalak. Beti horrela egin izan dugu, eta hori aldatzeko proposamenik ez du inork egin gure batzarretan. Inertzia badago hor, baina bestela ere, kirolariek euskal lizentziak aterarazita, zer aldatuko litzateke?». Gainera, Espainiako Federazioarekin harreman ona du Euskadiko Federazioak, eta hori hausterik ez dute nahi. Halakoa da federazio gehienetan jarrera.

Bat egiteko beharra

Euskal Federazioen Batasuna bultzatu behar dela ere aipatzen du Euskadiko Kirol Legeak. Hitzak urrun dira, baina, errealitate gordinetik. Elkarren berririk ez baitute federazioek, ez harremanik. Egoera horren aurrean, Euskal Selektzioen Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT) bilerak egin ditu Euskadiko 12-13 federazioekin, euskal lizentziak normaldu eta selekzioak bultzatzeko zer aukera dagoen aztertzeko. «Federazioetan jarrera eta egoera desberdinak daude, baina lan ildo komun bat martxan jartzea nahi dugu. Eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzari eskatu diogu bilera bat antola dezan federazio guztiekin», esan dio EGUNKARIari Martxel Toledo ESAITeko kideak. Sarri, nahi baino jarrera eskasagoa aurkitu dute federazioetan, eta, zer edo zer egiteko prest agertu direnen artean, ezina eta kezka nagusitu dira.

Euskal selekzioak bultzatzeko jarrera agertu dutenek, ezer egitekotan egitura sendoa behar dela nabarmendu dute; Pako Iriondo Euskal Mendizale Federazioko presidentea, esaterako: «Guk horixe selekzioa izan nahi dugula. Baina, txapelketetan parte hartzeko aukera izango bagenu ere, Federazioak ezingo luke hori bere gain hartu. Ez dugu dirurik. Espainian, adibidez, Kirol Kontseilu Gorena dute. Hemen ere horrelako zerbait behar litzateke, eta hor eginkizuna Eusko Jaurlaritzak izan behar du».

Eusko Jaurlaritza ari da dekretuak lantzen

KIROLAREN LEGEA duela urte eta erdi onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, eta, ordutik, legea bera garatzeko dekretuak lantzen jardun du Eusko Jaurlaritzak. Kirol Euskal Batzordea, Euskal Kirol Federazioen Batasuna, Goi Mailako Kirol Zentroen Sarea eta

Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautuko dituen dekretuak, «datozen hilabeteetan» onartuko dituztela esan dio EGUNKARIARI Imanol Agotek, Jaurlaritzako Kultura eta Kirol sailburuordeak.

2000. urteko aurrekontuetan diru partidak ere sartu di-

tu Jaurlaritzak, Kirol Legeak dioena betetzeko asmoz: 50 milioi pezeta euskal selekzioak bultzatzeko, 44 milioi modalitate olinpikoko goi mailako kirolariek bekak emateko, eta 22 milioi euskal kirolen plan estrategikoak egiteko (herri kirolak, pilota eta arrauna).

Kirol Federazioen Batasuna sortzeko, legea arautzeaz gain, «ia federazio guztiekin» bilerak egin ditu Jaurlaritzak, «proiektuetan oinarritutako harremana egituratzeko». Federazioei laguntza tekniko eta ekonomikoa emateko ere prest dago.